



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

LESAKAKO HAUR ETA GAZTE TALDEAK DINAMIZATZEKO ARDURADUNA KONTRATATZEKO DEIALDIA.

1. Arau orokorrak.

1.1. Xedea: Lesakako Udalak Konbentuko gela umeek erabiltzeko ireki nahi du. Horretaz arduratzeko (arratsalde ireki eta itxi), gelaren garbiketa egiteko, bertan arauak errespetarazteko eta aisialdiko ekintzak antolatzeke pertsona bat kontratatzea da helburu. Baita gazte lekua koordinatzeko eta haurren parte hartzea dinamizatzeke.

1.2. Arduradunak administrazioko C mailako kontratua eta lan sariak izanen ditu.

1.3. Kontratua 2023ko azaroaren 13tik 2024ko martxoaren 27 arte iraunen du.

2. Eginbeharrak.

2.1. Konbentuko gela ireki eta itxi (arratsaldeko 16:00etatik gaueko 20:00ak arte), astelehenetik ortziralera.

2.2. Haureta gazte taldeak dinamizatzea.

2.3. Bukieran, haur txokoaren proiektuaren memoria egitea.

2.3. Eman dakizkioken bertzelako lanak.

Kontratazioa egingo da Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 7ko 251/2018 Ebazpenaren baitan (interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki entitateei emanen zaizkien dirulaguntzen deialdia).

3. Izangaien baldintzak.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa. Parte har dezakete, orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetakoa herritarren ezkontideek, edo aipatutako nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartutako estatuetakoa herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, hortik gorakoak izanez gero, haien kontura bizi badira.

- Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

- Batxilergoko tituluaren jabe izatea edo Lanbide Heziketako 2. graduko tituluarena, edo horien baliokidea, edota eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena. Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

- Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

-Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia izan ez izana.

-Euskaraz jakitea, C1 mailaren titulua, EGA edo baliokidea den Hizkuntza Eskola Ofizialeko Gaitasun Agiria aurkeztuz egiaztatua, edo eskatutako hizkuntza eskakizuna duela egiaztatzen duen berariazko probaren bidez.

-Lan gabe egotea, eta lan eskatzaile gisa inskribaturik Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren menpeko enplegu agentziaren batean. Kontratazioak kanpo gelditiko dira Lesakako Udalak ekitaldi berean edo aurrekoan 3 hilabeteko eperako edo hortik gorako beste epe baterako 1. Oinarrian aipatutako deialdian edo antzeko edozein deialdiaren babesean kontratu dituen pertsonak.

4. Izen emateak eta eskaerak.

Eskaerak Lesakako Udalaren egoitzan (Plaza Zaharra 1. 31770 Lesaka) aurkeztu behar dira, **2023ko azaroaren 3 arte**, 14:00ak baino lehen modu hauetan:

- Aurkezpen pertsonala Lesakako Udaletxeko Erregistroan: 13:30.

-39/2015 Legearen 16.4 artikuluko baliabideak erabiliz aurkeztuz gero: 23:59.

-Eskaerak posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar diezazkioten eskabideari, ziurtatu aurretik. Gainera, Lesakako Udalari jakinarazi beharko zaio posta elektronikoz (udala@lesaka.eus); betiere, aurkezteko epearen egun eta orduen barrenean.

Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskaera orria (eransten den eredu behar bezala beteta).
- Nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua.
- Eskatzen den titulazioa edo baliokidea.
- Baloratzen ahal diren merezimenduak (ikastaroak eta lan esperientzia) egiaztatzen dituzten agiriak.

Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.

5. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Lesakako Udaleko alkatea.

Ordezkoa: Lesakako udaleko alkateordea.

Mahaikidea: Bortzirietako Oinarrizko Zerbitzuen Mankomunitateko teknikaria.

Ordezko mahaikidea: Bortzirietako Oinarrizko Zerbitzuen Mankomunitateko teknikaria.

Mahaikide-idazkaria: Lesakako Udaleko idazkaria.

Ordezko mahaikide-idazkaria: Berako udaleko idazkaria.

Epaimahaia probak hasi aitzinetik eratuko da eta gehiengoz erabakiko ditu deialdi honen oinarriak ulertu eta aplikatzean sor daitezkeen arazo guztiak.

6. Euskara proba.

Euskara maila neurtuko da. Proba baztertzailer horretan azterketak egin beharko dira pertsona horrek deialdi honetan eskatzen den hizkuntza-mailari dagokion gaitasuna duen ala ez egiaztatzea xede. "Gai" edo "ez gai"tzat hartuko dira hautagaiak. Proba gairak beharko da gainerako probak egin ahal izateko. Egitera aurkezten ez direnak baztertuak izango dira.

7. Idatzizko proba.

Idatzizko proba egingen da. Proba horren bidez neurtuko da izangaiek lanposturako duten ezagutza eta gaitasuna. Proban lanpostuan gerta daitezkeen egoera baten aitzinean izangaiek proposatzen duten irtenbidea neurtuko da. Probak 30 minutu iraunen du. Izangaiei aitzinetik txandak emanen zaizkie eta ariketa prestatzeko denbora izanen dute. Guztira 70 puntu balio du.

8. Merezimenduen balorazioa.

Atal honetan gehienez ere 30 puntu lortu ahalko dira. Aurkezten diren merezimenduak baloratu ahal izateko agiriak aurkeztu beharko dira.

Honako merezimendu hauek baloratuko dira:

- Formakuntza (gehienez ere 15 puntu):
 - Irakaskuntzan, Pedagogian nahiz Kale Heziketan unibertsitateko titulazioa, erdi nahiz goi mailakoa, izatea edo aisialdi eskola batek egiaztatutako begirale titulua izatea: gehienez ere 8 puntu.
 - Haurren aisialdiarekin zerikusia duten ikastaro, tailer, jardunaldi eta antzekoetan parte hartu izatea: gehienez ere 7 puntu. Horrelakoak egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan garbi jaso behar da horien iraupena ordu kopuruaren arabera. Puntuak emateko oinarri gisa hartuko da 10 orduko ikastaroa, eta horietako bakoitzagatik 1 puntu emanen da; ikastaroak gehiago edo gutxiago iraun badu, puntuak proportzioan kalkulatu dira.
- Lan esperientzia, lanpostuarekin zerikusia duena (gehienez ere 15 puntu): hori egiaztatzeko enpresa edo elkarte ziuurtagiria edo lan kontratua aurkeztu beharko da; betiere, aurkezten diren dokumentuetan argi eta garbi adierazi beharko da lanean emandako denbora (kontratuaren hasiera eta bukaera egunak, eta lanean emandako ordu kopurua), eta zehazki zein lanetan aritu den. Lan honetan emandako 60 orduko puntu 5 zenbatuko da.

9. Datuen babesari.

Datuen babesari buruzko informazioa.

Datuen tratamenduaren arduraduna:

Identitatea: Lesakako Udala.

Helbidea: Herriko plaza 1, 31770, Lesaka.

Telefonoa: 948 637005.

Posta elektronikoa: udala@lesaka.eus.

Helburua: Enplegu deialdiak kudeatu, botere publikoen erabileraren baitan.

Oinarri juridikoa: 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.

Datuak mantentzeko denbora: Datuak gordeko dira aipatutako helburua lortzeko behar den denborean eta Udalak tratamenduari buruzko erantzikuzunak dituen bitartean. Gainera, Artxibo eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean araututakoa bete behar da.

Datuen hartzaileak: Datuak eman ahalko dira epaile eta auzitegiei, indarrean dagoen legedia konplutuz, eta argitaratuko dira udal web orrian eta iragarki-oholetan, deialdian ageri den bezala.

10. Helegiteak.

Deialdi honen edo aplikazio egintzen aurka helegite hauetakoren bat paratzen ahal da, aukeran:

- Administrazioarekiko helegitea, Nafarroako Auzitegi Nagusian dagokion sailaren aitzinean, argitara eman eta biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barnean.
- Horren aurretik, eta hala nahi bada, gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegian, argitaratzen denetik hasi eta hilabeteko epearen barnean.
- Berraztertze helegitea, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epearen barnean, jakinarazpen hau hartu eta biharamunetik kontatzen hasita.
-

Lesakan, 2023ko urriaren 26an
Alkatea, Ladis Satrustegui Alzugaray.

EGINBIDEA:- Konstarazteko Klausula Plegu hau Lesakako Udalaren alkatearen 2023ko urriaren 26ko 486/2023 ebazpenaren bidez onetsi duela.

Alkatea,
Ladis Satrustegui Alzugaray

Idazkaria
M. Jose Larrayoz Ariztegui.



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

I. ERANSKINA

Eskaera erdua

Eskatzaileari buruzko datuak:

Izen-abizenak:	
Helbidea:	
Herria eta P.K:	
Telefono zenbakia:	
Posta elektronikoa:	

Azalpena:

- Lesakako Udalak haur eta gazte taldeak dinamizatzeko arduraduna kontratatzeke deialdia egin du, eta horretan parte hartu nahi dut.
- Eskakerak aurkezteko epea bukatzean deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut.
- Ez dut karguan aritzea galarazten didan ezintasun fisiko edo psikikorik.
- Honekin batera eskatutako dokumentazioa eta baloratzen diren merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkezten ditut
- Euskararen mailako ezagutza frogatzeari dagokionez (markatu bidezkoa dena):
 - Euskararen C1 mailako ezagutza izatearen ziurtagiriaren kopia kautotua gehitzen diola eskabide honi.
 - Euskararen C1 mailako ezagutza frogatzeko proba egitea eskatzen duela.

Eskaera:

Eskaera hau jasotzeko eta hautaketa prozesu honetan onartua izateko.

Lesakan, 2023ko _____aren __ (e)an.

(Sinadura)